

HOROSKOPOAREN PARKEA

Parke hau gai zeltei dago lotuta, hain zuzen ere, zuhaitzen horoskopo zeltarrari; kultura hori, oraintsuko ikerketa batzuen arabera, estu lotuta dago euskal tradizioarekin. Dublingo Trinity Collegeko zientzialari talde batek ziurtatu du Irlandako lehenengo biztanleak Euskal Herritik eta Galiziatik heldu zirela, beraiekin zenbait fauna eta flora espezie eramanez; horiekin, irlan finkatu eta beraien leinua ezarri zuten. Azterketa zehatz baten ondoren, Trinity Collegeko Smurfit Genetika Institutuko Dan Bradley irakasleak dio irlandarrek, euskaldunek eta galiziarrek kromosoma eta antzekotasunak partekatzen dituztela beraien kultura eta ohituretan.

Hori dela eta, Leioak euskal kulturarekin erlazio handia duen kultura zeltaren elementu bat berreskuratu nahi izan du: zuhaitza. Zuhaitzak kultura zeltaren gunea izan ziren; izan ere, beraien astrologian, zuhaitza biziaren eta babesaren sinboloa da. Hori euskal kulturari estu lotuta dagoen ezaugarria da; Gernikako haritzaren sinbologia gogoan hartzea baino ez dugu. Basoak druiden katedralak ziren. Horrela, bada, urtaroko zuhaitz-magian inspiratuta, druidek horoskopo babeslea sortu zuten, eta zuhaitz bakoitza urtearen sasoi batekin lotu zuten; horrenbestez, 21 zuhaitzez osatutako horoskopo sortu zuten. Bi zuhaitz ekinozioetarako, bi zuhaitz solstizioetarako eta gainerako 17 zuhaitzak egutegiko aldi distantziakide eta kontrajarrietarako. Zuhaitz zehatz baten erreinupean jaiotako pertsonen zuhaitz horren ezaugarriak eta babesak jasotzen zuten bizitzan.

Berdegune berri honek 7.000 metro koadro belar eta 21 zuhaitz espezie berezi ditu. Zuhaitzak hiruko taldeetan daude jarrita, eta, beraz, 61 zuhaitz daude guztira. Era berean, 2 metroko zabalera duen bide bat dauka, adierazitako 21 tokietara joan ahal izateko. Toki horietako bakoitzean, plaka batean dago jasota zein zuhaitz mota den –euskaraz, gaztelaniaz eta latinez–, zein datatan datorren bat pertsonen jaiotzarekin eta zuhaitz bakoitzaren ezaugarriak, zuhaitzaren babesak jasotzen duten pertsonen antzekoak.

Parkea sare natural zabala osatzen duten beste berdegune batzuei gehitu zaie. Leioak udal ikur bihurtu du herrian berdeguneak sortu eta mantentzeko helburua. Hori horrela, udalerririk parke handiak ditu, hala nola, Artazakoa eta Pinosolokoa (biek batera, 22 hektarea, hau da, 225.000 metro koadro dituzte, bai eta UPV-EHUren Arboretum delakoa ere (16 hektareakoa), udal geografia osoan zehar banatutako auzo-lorategi ugarienez gain: Zarragabarrena, Aramaioena, San Bartolomé, Ugarteondo, Ondiz, Aldapa, Elexalde, Anporrena, Bordeona, Kurkudi, Mendibil...

JAIOTZA DATAK ETA ZUHAITZ BAKOITZAK PERTSONEI TRANSMITITZEN DIZKIEN EZAUGARRIAK

- 1 SAGARRONDOA** **ABENDUAREN 23tik URTARRILAREN 01era / EKAINAREN 25etik UZTAILAREN 04ra**
Hauskorra eta bere barruan zaugarria. Xarma eta xalotasuna. Edo oso sendoa, gogorra, energia handiko izaeraduna, ez oso lagunkoia. Beldurra ustekabeei.
- 2 IZEIA** **URTARRILAREN 02tik 11ra / UZTAILAREN 05etik 14ra**
Ez du pentsatzen duena adierazten, barnerakoia, zerbait nahi duenean irmoa. Gogorra bere buruarekin. Betebeharraren ardura. Helburu eta desira garrantzitsuak.
- 3 ZUMARRA** **URTARRILAREN 12tik 24ra / UZTAILAREN 15etik 25era**
Pentsatzen duena esaten du, zintzotasuna, erreparurik gabe. Eragina besteengan. Arduratsua, irudimentsua, moral handikoa, ideiekiko eta maitasunekiko fidela.
- 4 ALTZIFREA** **URTARRILAREN 25etik OTSAILAREN 03ra / UZTAILAREN 26tik ABUZTUAREN 04ra**
Tinkoa, hauskaitza, zurruna. Besteen miresmenarekiko sentikorra. Batzuetan nagia eta lotsagabea, izaera saiatua.
- 5 MAKALA** **OTSAILAREN 04tik 08ra / MAIATZAREN 01etik 14ra / ABUZTUAREN 05etik 13ra**
Beti gaztea. Sentikorra, baina errealista; ausarta, borrokalaria, emankorra, langilea. Bere ametsa: alde soziala eta ekoizpena uztartzea. Iraupen fisikoa eta morala. Amore ematen du, baina ez du lurra jotzen.
- 6 ZEDROA** **OTSAILAREN 09tik 18ra / ABUZTUAREN 14tik 23ra**
Bizitza soziala eta publikoa: antzerkia, eta berak onena darama. Erakargarria, izugarri irudimentsua, egungo errealitateari aurreratuta bizi da.
- 7 PINUA** **OTSAILAREN 19tik 28ra / ABUZTUAREN 24tik IRAILAREN 02ra**
Kontraesankorra, isila, barnerakoia, minbera, sentsuala, erbesteratu daiteke. Edo kakapirria, perfekzionista, bere buruari asko eskatzen dio.
- 8 SAHATSA** **MARTXOAREN 01etik 10era / IRAILAREN 03tik 12ra**
Xaloe; lotsatia, baina diplomazia zalea; zalantzakoa. Edo misteriotsua, erromantikoa. Bakardadea eta denbora behar ditu onena emateko. Gogorra eta iraunkorra.
- 9 EZKIA** **MARTXOAREN 11tik 20ra / IRAILAREN 13tik 22ra**
Metodikoa, logikoa, zentzuduna, zuhurra, zehatza. Edo zurruntasuna erakusten du harmen eta ahultasun handiak ezkutatzeko.
- 10 HARITZA** **MARTXOAK 21**
Gogorra, iraunkorra. Gogo bizia, adorea. Energia kolpeak. Justiziarako sentimendua. Tolerantziarik eza.
- 11 HURRITZA** **MARTXOAREN 22tik 31ra / IRAILAREN 24tik URRIAREN 03ra**
Independentea, indibidualista. Harreman sutsuak eta iragankorrak. Oreka soziala. Filosofoa. Ezegonkorra, aldakorra.

- 12 GURBEA** **APIRILAREN 01etik 10era / URRIAREN 04tik 13ra**
Hauskorra ematen du, baina sendoa da, iraunkorra, ausarta, igartzeko moduko gauzak egiteko gai. Kosta egiten zaio ohiko gauzetara egokitzea.
 - 13 ASTIGARRA** **APIRILAREN 11tik 20ra / URRIAREN 14tik 23ra**
Atsegina eta lagunkoia muturreraino, basatia eta barru ezagutezina. Bitasuna. Espiritualtasuna, dotorezia. Estetikarako zentzumenena.
 - 14 INTXAURRONDOA** **APIRILAREN 21etik 30era / URRIAREN 24tik AZAROAREN 11ra**
Itxuraz zakarra, iraunkorra, diruzaina, independentea. Errealista, zentzuduna. Kritikoa, umore garratza. Zehatza, posesiboa.
 - 15 GAZTAINONDOA** **MAIATZAREN 15etik 24ra / AZAROAREN 12tik 21era**
Ideiak gauzatzea gustatzen zaio, baina probetxua aterata. Gezurretik egia ateratzen du, kritikoa, garratza, baina sentimental eta samurra barrutik.
 - 16 LIZARRA** **MAIATZAREN 25etik EKAINAREN 03ra / AZAROAREN 22tik ABENDUAREN 01era**
Pertsona goibela, zurruna, amorerik ematen ez duena eta handinahia edo argia, borondatetsua, malgua eta erraz egokitzen dena.
 - 17 XARMA ARRUNTA** **EKAINAREN 04tik 13ra / ABENDUAREN 02tik 11ra**
Arretarik gabea batzuetan, irudimentsua, polemikoa. Prestua eta emankorra. Baita xarmangarria, lagunkoia, mundutarra eta oportunistak ere.
 - 18 PIKONDOA** **EKAINAREN 14tik 23ra / ABENDUAREN 12tik 21era**
Nabarmenezko beharra. Familia estimatzen du. Ez du tranparik egiten. Hasten duena beti amaitzen du. Batzuetan idealista, ameslaria eta berekoia.
 - 19 URKIA** **EKAINAK 24**
Artista da. Ameslaria, baina gauza materialetan errealista. Xarmangarria, ausarta, atsegina; baina bakartuta hobeto lan egiten du. Ezberdin bizi da.
 - 20 OLIBONDOA** **IRAILAK 23**
Karisma, garbitasuna. Izaera naturala eta sana. Lasaia. Badirudi ezerk ez diola ardura. Gustu ona, diplomazia eta ospea.
 - 21 PAGOA** **ABENDUAK 22**
Azkarra, serioa, pentsakorra, baina bere borondatea betetzeko malezia erabiltzen duena. Arduratsua, edukazioa dauka, baina gora igotzearen, edozertarako prest dago.
- Iturria** **UDABERRIKO EKINOZIOA** Martxoak 21
UDAKO SOLSTIZIOA Ekainak 24
Ostalaritza **UDAZKENEKO EKINOZIOA** Irailak 23
NEGUKO SOLSTIZIOA Abenduak 22